

## **FUNTSEZKO JARDUERAK**

Enpresa batean berebiziko garrantzia dute funtsezko jarduerak, horrela balorezko proposamena garatu ahal izateko, eta bide batez harreman eraginkorrak eraikitzea ahalbidetuz eta bezero potentzialarengana errazago iritsiz. Zehatz mehatz, hainbat funtsezko jarduera egon behar dira enpresaren funtzionamendua eraginkorra izan dadin. Hauei dagokienean, hiru adar bereiz ditzakegu: produkzioa, arazoa konpontzea eta plataforma edo sareak. Bat baina gehiago bereiz badaitezke ere, gure enpresak arazoak konpontzeko jarduera izango da burutu beharko duena.

Hiru adar bereizten diren honetan bakoitzak honako hau esan nahi du. Lehenengoa, produkzioarekin loturiko jarduerak osatzen dute, hau produktuaren diseinu, errealizazio eta entregarekin lotuta dago. Bigarrena, aldiz, arazoa konpontzea izenez ezagutzen da, hau da, bezeroaren arazoak konpontzeaz arduratzen datza. Ezagutzaren gestioan oinarrituta egoteaz gain, etengabeko prestakuntza ezinbestekoa da. Azkenik, plataforma eta sareko jarduerak bereiz ditzakegu, plataforma teknologiko edota interneten erabileran oinarritzen diren negozioetan aurkitzen da. Hemen plataformaren gestioa egoki egiteaz arduratu, etengabeko mantenua egin eta plataforma promozionatzea behar izaten dute.

Lehen esan bezala, gure enpresaren funtsezko jarduera bezeroaren arazoa konpontzea izango da. Azken finean, laguntza behar duten horiei haien premia asetzeko beharrezkoa zaien eragilearengana bideratzean oinarrituko gara, haiek dituzten eta bakarrik irtenbide bat eman ezin dietenei arazoa konpontzen saiatuz. Horretarako, beharrezkoa den alorrean ezagutza duten profesionalekin gestioak burutuz eta bezeroen ongizatea bermatuz. Jakin badakigu gure inguruan hainbat alorretan jarduera hau burutzen dutela, hau da, arazoak konpontzeaz arduratzen diren enpresa asko badirela, baina ez daude horrelako gestioak burutzen dituzten enpresa ugari. Horregatik iruditzen zaigu ezinbestekoa batez ere gu zentratuko garen segmentuari, pertsona helduei alegia, jarduera mota hau eskaintzen duen enpresarengana jotzeko aukera. Gainera, ahalik eta gertuko, kalitatezko eta konfiantzazko zerbitzua eskainiz, haiek *Pausuz, pausu!* enpresa bigarren etxe gisa ikus dezaten eta gure enpresan tokia izango dutela sentituz.